

Bakerako hezkuntza

Bakea, gizakien arteko topaketarako gunea eta harreman atseginen garaia da. Ez du gudarik edo gatazkarik ez dagoela esan nahi bakarrik. Esan daiteke bakea askatasunean eta berdintasunean ematen dela, bidegabeko egoerek ez baitute inoiz benetako bake aldirik eragiten. Horregatik, batzuetan, erdizka gelditzea baino hobe da “eten egitea”, nahiz eta mingarria izan, epe luzera indarkeria bidegabekeriaren gainetik geratuko bailitzateke, bai gizartean eta bai familian.

Familia testuingurutik, bakerako hezkuntza sustatzeko estrategietako batzuk hauek izan daitezke:

- Gure barne antolamenduan familiako senitarteko guztiei benetan parte hartzen utzi behar diegu, laguntza, elkarrizketa eta negoziazioa abiapuntutzat hartuta. Horrela, alderdien interes desberdinetako betiko elkarbizitza gatazkatsuak, erabakien bidezko adostasunerako eta konpromisorako bide egokia aurkituko du.
- Familiako helduek eskoletan (Zentroak edo Guraso Elkarteak) antolatzen dituen jardunaldi zehatzetan parte hartzea seme-alabek etorkizunean imitatuko duten eredia izan daiteke.
- Familiaren konpromisoan eta parte hartze aktiboan oinarritutako errespeturako eta berdintasunerako irakaskuntza susta daiteke, seme-alabak balioetan hezteko lana errazago egiten duten estrategia eta jolas desberdinen bidez.

“Gatazkez” hitz egiten dugunean, gehienok txarra dela uste dugu. Oihuak, norgehiagokak, “istiluak” datozkigu gogora, eta, amaitutakoan, “alferrikakoak” izan direla uste dugu. Nolanahi ere, ez litzateke horrela izan beharko. Gatazkak aldaketa dakar, eta, gainera, bi ideia, iritzi edo ikuspegiren edo gehiagoren arteko kontrajarpena da. Izan ere, “den-dena” baliagarria izan ez dadin, errespetuan oinarritutako gizarte-trebetasunen bitartez behar den moduan konpondu ondoren, lagungarriak izan litezke aurrera egiteko eta aldaketa kaltegarria ez izateko.

Sarritan, familietan eguneroko jardueretan agertzen dira gatazkak (bikotekidearekin, seme-alabekin, neba-arreben artean, gizarte-ingurunearekin...). Hala ere, familiaren funtzionamendua ezin da gaizki konpondutako gatazkan oinarritu, seme-alaben garapenaren kalterakoa delako eta bikoteak zein gizarte-harremanak zapuzten dituelako.

Familiek ez dute euren zeregina ikastetxeetako hezitzaileen esku utzi behar. Hau da, ez dago “ikastetxean irakatsiko diote ez jotzen” esaldia esaterik. Gurasook balioen oinarria finkatu behar dugu, seme-alabak ingurune hurbilenera egokitu daitezzen (horra hor familiako kideak, adiskideak, beste heldu batzuk...).

LABURPENA

Elkarbizitza baketsua eta atsegina izateko gure gizartean denok onartu eta ulertuko ditugun arau batzuk definitu behar ditugu, norberarenganako eta besteenganako errespetua eta estimua nabarmentzeko. Aipatutako arauak familian ere finkatu behar ditugu eta, beraz, gure familia barruan dauden balioak erabili egin behar ditugu.

Dra. Ainhoa Manzano Fernández
Dr. Juan Luís Martín Ayala
ETXADI
Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa
Centro Universitario de Psicología de la Familia